

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren diru- laguntzen Plan Estrategikoa 2016-2018.

*(Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluak
onartutakoa, 2015eko azaroaren 25ean)*

1.- Sarrera

Plan hau Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren plangintza-tresna gisa eratu da, eta erabilera publikoko edo interes sozialeko jarduera bat bultzatzea edo xede publiko bat sor dadin sustatzea ditu helburutzat; horretarako, diru-laguntzak emango ditu.

Plan hau egiteko, lortu nahi diren interes publikoak aztertu dira eta plan honen indarraldian horretarako eskuragarri dauden baliabideekin erkatu dira. Era horretan, bermatzen da efikazia- eta eraginkortasun-maila areagotzea, baita gure jardun-eremuan gardentasuna indartzea ere.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren diru-laguntzen Plan Estrategikoa programa-izaera duenez, Plan honen edukiak eta onarpenak ez dute ez eskubiderik, ez betebeharririk sortzen, eta Planaren eraginkortasuna diru-laguntza lineak praktikan jartzearen baitan dago, ekitaldi bakoitzean aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta, beste alderdi batzuen artean.

Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutuak –planaren sustatzaileak– egindako jarraipen-txostenen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandako txostenen emaitza gisa, eskuratu nahi diren helburuen lorpen-mailara edo inbertitutako baliabideen mailarako egokia den lorpen-mailara iristen ez diren diru-laguntza lineak badaude, linea horiek aldatu ahal izango dira, beste linea efikazago eta eraginkor batzuk jarri ahal izango dira haien ordean, edo, hala badagokio, kendu ahal izango dira.

2.- Erakunde- eta denbora-eremua.

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honek Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak kudeatzen dituen diru-laguntza guztiak hartzen ditu barnean, Kontsumobide sortzeko ekainaren 29ko 9/2007 Legean (2007ko uztailaren 20ko EHAA) bildutako eskumenen eta eginkizunen arabera.

Denbora-eremuari dagokionez, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez (2006ko uztailaren 21eko BOE) onartutako Diru-laguntzen Lege Orokorren erregelamenduaren 11.4 artikulua arabera, zirkunstantzia berezirik ez dagoela ikusirik, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoak hiru urteko indarraldia izango du, hots, 2016ko, 2017ko eta 2018ko ekitaldietan egongo da indarrean.

3.- Diru-laguntza lineak

3.1.- Helburu estrategikoa:

Kontsumo-politikekin eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren helburu estrategikoekin bat egiten duten aliantza sendo eta lerrokatuen sare bat lortzea. Horretarako, bi diru-laguntza linea daude:

3.2.- 1. diru-laguntza linea: Tokiko erakundeetara eta haiek sustatutako erakundeetara bideratutako laguntzak, kontsumitzaile eta erabiltzaileak sustatu eta defendatzeko.

3.1.1.- Helburuak:

3.2.1.1.- 1. helburua: Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoetara (KIUB) bideratutako gune eta zerbitzuek funtziona dezaten eta jarduerak, alegia, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei argibideak eta prestakuntza emateko jarduerak eta gune eta zerbitzuon argitalpenak argitaratu eta zabaltzekoak, egiten laguntzea.

1. adierazlea: Irekita dauden bulegoen kopurua
2. adierazlea: Erantzundako kontsulten kopurua
3. adierazlea: Erantzundako erreklamazioen kopurua
4. adierazlea: Garatutako jarduerak

3.2.1.2.- 2. helburua: Kontsumoko ikuskapen-jarduerak gauzatzen laguntzea.

1. adierazlea: Ikuskatzaile kopurua
2. adierazlea: Ikuskatutako sektoreen kopurua

3. adierazlea: Ikuskapen-jarduerak egiten dituzten Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoen kopurua

3.2.1.3.- 3. helburua: Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoetara bideratutako gune eta zerbitzuak instalatzen, eraberritzen, handitzen, hornitzen edo lekuz aldatzen laguntzea.

1. adierazlea: Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulego berrien kopurua

2. adierazlea: Ekipamendua handitu, hobetu edo berritzen duten Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoen kopurua

3.2.2.- Erakundea

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua.

3.2.3.- Zer sektoretara dagoen zuzenduta

Tokiko erakundeetara eta haiek sustatutako erakundeetara, kontsumitzaileak sustatu eta defendatzeko.

3.2.4.- Programa

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoetarako laguntzak (KIUB).

3.2.5.- Prozedura eta epea

Oinarrien agindua eta urteko deialdiaren ebazpena.

3.2.6.- Finantzaketa-kostuak eta -iturriak

2016. urtean laguntza horietara bideratuko den zenbatekoa 958.570 € izango da. Zenbateko hori Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Instituturako 2016. urterako aurrekontuen lege-proiektuan aurreikusitako kreditu-saldoetan azaltzen da, eta ondoren aipatuko diren aurrekontu-partidetan bilduta daude, 2016. urterako ordainketa-kreditua eta 2017. urterako konpromiso-kreditua bereizita:

DIRU-LAGUNTZA LINEA	2016	2017
Funtzionamenduaren, informazioaren eta prestakuntzaren ondoriozko gastuak	644.378	214.793
Kontsumo Ikuskapeneko gastuak	60.000	20.000
Aurrekontu-aplikazioa		
16.0.1.49.01.0000.4.422.01.44320.002	704.378	234.793

DIRU-LAGUNTZA LINEA	2016	2017
Eraberritzearen, instalazioaren, handitzearen eta kokapen-aldaketen ondoriozko gastuak	14.549	4.850
Aurrekontu-aplikazioa		
16.0.1.49.01.0000.4.722.01.44320.002	14.549	4.850

2017. eta 2018. urteei dagokienez, urte horietako aurrekontuak egiten direnean ezartzen dena hartuko da kontuan.

3.3.- 2. diru-laguntza linea: Kontsumitzaileen Elkarteentzako laguntza ekonomikoak, funtzionamenduaren, laguntza juridikoaren eta kontsumo-proiektuak gauzatzearen ondorioz sortutako gastuak ordaintzeko.

3.3.1.- Helburuak

3.3.1.1.- 1. helburua: Kontsumitzaileen Erakundeen funtzionamendu orokorrari laguntzea, kontsumitzaileei erantzuteko eta haien erreklamazioak kudeatzeko.

1. adierazlea: Irekita dauden bulegoen kopurua
2. adierazlea: Erantzundako kontsulten kopurua
3. adierazlea: Erantzundako erreklamazioen kopurua

3.3.1.2.- 2. helburua: Kontsumitzaileen erakundeek kontsumitzaileei ematen dioten laguntza juridikoa gauzatzen laguntzea.

1. adierazlea: Egindako ekintza judizialen kopurua

3.3.1.3.- 3. helburua: Kontsumo-proiektuak egiten laguntzea.

1. adierazlea: Egindako kontsumo-proiektuen kopurua

3.3.2.- Erakundea

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua.

3.3.3.- Zer sektoretara dagoen zuzenduta

Irabazi-asmorik gabeko elkarteetara.

3.3.4.- Programa.-

Kontsumitzaileen Elkarteentzako laguntzak.

3.3.5.- Prozedura eta epea

Urteko deialdiaren ebazpena.

3.3.6.- Finantzaketa-kostuak eta finantzaketa-iturriak

2016. urtean laguntza horietara bideratuko den zenbatekoa 456.000 € izango da. Zenbateko hori Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Instituturako 2016. urterako aurrekontuen lege-proiektuan aurreikusitako kreditu-saldoetan azaltzen da, eta ondoren aipatuko diren aurrekontu-partidetan bilduta daude, 2016. urterako ordainketa-kreditua eta 2017. urterako konpromiso-kreditua bereizita:

DIRU-LAGUNTZA LINEA	2016	2017
Kontsumitzaileen Elkarteentzako laguntza ekonomikoak		
Aurrekontu-aplikazioa		
16.01.49.01.0000.4.454.99.44320.001.H	342.000 €	114.000 €

2017. eta 2018. urteei dagokienez, urte horietako aurrekontuak egiten direnean ezartzen dena hartuko da kontuan.

4.- Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Plan hau 2017ko eta 2018ko ekitaldietan eguneratu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ezarritakoa kontuan hartuta.

Plan hau aplikatetik eratorritako ondorioen kontrola eta bilakaera Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Erakundearen zuzendaritzak egingo du.

5.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea eta argitaratzea

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa (2016-2018) erakunde autonomo horren Zuzendaritza Kontseiluak hartutako erabaki bidez onartuko da.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa (2016-2018) Kontsumobideren webgunean argitaratuko da, eta informazioaren eta gardentasunaren alorrean ordenamendu juridikoan unean-unean aurreikusten diren bestelako xedapenak aplikatuko zaizkio.